

Egungoa ez den  
egunerokoan aurkitu zaitut.  
Nire kaligrafia ahanzi eta asalduak  
zure ile kizkurra hitz larriz marraztu zuela dirudi.  
Agidanez, orduan,  
akats ortografiko perfektuak nerabilzkien.  
Gerora hasi ginen maitasuna  
inperfektua dela sinesten.

Elurra ari du leihoaren bestaldeko belardian.  
Elurra ari du leihoaren honako orrialde denetan  
-eki itxiak edo ilargi etsiak horitutako elur horia-  
eta zabaldu nituen tintazko xendrak  
deszifratzen saiatzen ari naiz orain.  
Nola heldu ginen horren inozo izatera?.  
Nola begitandu zitzaigun inozo izatearen jolasa  
horren ederra eta horren arrisku bakoa?  
Nola eskatu genion inozo izateagatik  
barkamena elkarri?

Leihoaren bestaldean,  
memoriatik aske dagoen belaze zurian,  
bildu dira ardiak azkenean.  
Munduari  
beltz izan nahi dutela aldarrikatzeko ote?

Asier Serrano

*Te he encontrado  
En un diario que no es actual.  
Parece que mi caligrafía olvidada y perturbada  
Trazó en mayúsculas tu pelo rizado.  
Al parecer, entonces,  
hacia perfectos fallos ortográficos.  
Luego empezamos a creer que el amor  
Era imperfecto.  
Nieva  
En el campo del otro lado de la ventana.*

*Nieva  
en todas las páginas de este lado de la ventana  
-nieve amarilla del sol cerrado o de la luna desesperada-  
Y ahora estoy intentando descifrar  
Las sendas de tinta que abrí.  
¿como llegamos a ser tan inocentes?  
¿como nos pareció que el juego a ser inocente  
Podría ser tan hermoso y sin riesgos?  
¿como es que nos pedimos perdón al uno al otro  
Por ser inocentes?*

*Al otro lado de la ventana,  
En el prado blanco que está a salvo de la memoria  
Se han reunido al fin las ovejas,  
¿Será para reinvicarlo al mundo  
Que quieren ser negras?*

Asier Serrano

J'ai te trouvé  
Dans un journal qui n'est pas courant.  
On dirait que mon calligraphie oublié et tranquille  
Traçait en lettre capitale ton cheveux bouclés.  
Apparemment, puis,  
il y avait fautes d'orthographe parfaites.  
Puis nous avons commencé à croire que l'amour  
est imparfait.

Il neige  
Dans le domaine de l'autre côté de la fenêtre.  
il neige  
sur toutes les pages de ce côté de la fenêtre  
-la neige jaune du soleil fermé ou de la lune désespérée  
Et maintenant je suis en train de déchiffrer  
Les chemins d'encre que j'ai ouverte.  
Comment est-ce que nous sommes aussi naïf?  
Comment est-ce que nous croyons le jeu à être naïf  
Pouvait être si belle et sans risque?  
Comment est-il que nous demandons pardon l'un à l'autre  
Pour être naïf?

De l'autre côté de la fenêtre  
Dans le domaine blanc est sauf de la mémoire  
Enfin s'ont reuni les moutons,  
Sera-ce pour le dire au monde  
qu'ils veulent être noir?

Našel jsem tě  
v jednom deníku, který není běžný.  
Řeklo by se, že můj zapomenutý a klidný krasopis  
vykresluje velkými písmeny tvé kučeravé vlasy.  
Pak, podle všeho,  
tu byly dokonalé pravopisné chyby.  
Potom jsme si začli myslet, že láska  
je nedokonalá.

Sněží  
na pozemku na druhé straně okna.  
sněží  
na všechny stránky této strany okna-  
sníh žlutý zavřeným sluncem či zoufalým měsícem  
A právě teď luštím  
cestičky inkoustu, které jsme otevřel.  
Jakto, že jsme tak naivní?  
Mohla by být tak krásná a bez rizik?  
Jakto, že žádáme omluvu jeden po druhém  
abychom byli naivní?

Z druhé strany okna  
Na bílém pozemku, který tu chrání paměť  
se nakonec sdružili ovce.  
Je to kvůli tomu, aby řekli světu  
že chtějí být černé ?

Larrialdietarako zerrenda errepasa dezagun.

**Bat:**

Ohetik jaikitzean elkarrekin joango gara komunera,  
ispiluaren aurrean  
betzuloak zenbat ubeldu zaizkigun ikertzera.

**Bi:**

Kafesnetan ordez,  
ardotan bustiko ditugu kruasanak.

**Hiru:**

Nik zure soineko purpura jantziko dut,  
eta zuk  
nire hileta elizkizunerako espresuki  
erosi nuen esmokina.

**Lau:**

Zortzi uso mezulari lumatu eta  
apartamentuaren akuratzaillearekin  
zorrak kitatuko ditugu.

**Bost:**

Espaloiaaren bestaldeko itsuak animatuko ditugu  
zebrabidea,  
semaforoa gorri dagoenean igaro dezaten.

**Sei:**

Ospitale atarian klaxona joko dugu ozen,  
koma egoeran daudenek,  
Herioren turuta zurruna  
aditu dutela pentsa dezaten.

**Zazpi:**

Zazpi,  
ez bat gehiago, ez bat gutxiago,  
zazpi izango dira beteko ditugun bekatu kapitalak.

**Zortzi:**

Eskutik emanda paseatuko gara  
milioika espezie exotiko eta bakar biltzen dituen  
lorategi botanikoaren erditik.

**Bederatzi:**

Azken musua ernalduko dugu,  
ilargia eta eguzkia eklipse absurdo batean  
ezkon daitezten.

**Hamar:**

Lo beltzari  
garai gaitzan utziko diogu.

Larrialdietarako zerrenda errepasa dezagun,  
iturburuko apo morea  
larrazkenaren usainera makurtu aitzin.

Asier Serrano

Repasemos la lista de emergencias.

Uno:

Al levantarnos de la cama iremos juntos al baño,  
Para inspeccionar delante del espejo  
Cuanto se nos amoratona las ojeras.

Dos:

Mojaremos los cruasanes en vino  
Y no en cafe con leche.

Tres:

Yo me pondre tu vestido púrpura,  
Y tu  
El esmoquin que compré expresamente  
Para los funerales.

Cuatro:

Desplumaremos ocho palomas mensajeras  
Y le pagaremos las deudas  
al arrendador del apartamento.

Cinco:

Animaremos a los ciegos del otro lado de la acera  
Para que pasen el paso de cebras con el semaforo en rojo.

Seis:

Tocaremos el claxon fuerte delante de los hospitales  
Para que los que estan en coma  
Escuchen la corneta dura de la Muerte.

Siete:

Siete,

Ni más ni menos,  
Serán los pecados capitales que cometeremos.

Ocho:

Pasaremos cogidos de la mano,  
Atravesando el jardin botanico que contiene  
Millones de especies exoticas y unicas.

Nueve:

Fecundaremos el ultimo beso,  
Para que la luna y el sol se casen en un eclipse absurdo.

Diez:

Dejaremos que el negro sueño nos venza.  
Repasemos la lista de emergencia,  
Antes de que el sapo morado de la fuente  
Se arrodille al olor del otoño.

**Nik diot:**

**Tiranoa da lurra,  
bere baitan babestuko nauela diostanean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da harkaitza,  
bere goroldioa burko gisa eskaintzen didanean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da belarra,  
bere ahoaz zaurituko nauela mehatxatzen nauenean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da airea,  
bere birikek nire birikak estutzen dituztenean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da euria,  
bere kasketak nire malkoak disimulatzen dituenean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da elurra,  
bere mantuak zure lorratzak ezkututzen dizkidanean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da zerua,  
bere grisean zuria eta beltza bereizten uzten ez didanean.**

**Nik diot:**

**Tiranoa da unibertsoa,  
bere infinitua zure bazterreko soa bezain zabala denean.**

**Eta nik diot:**

**Tiranoa naiz baina  
nire tiraniak ez du inor izutzen.**

Asier Serrano

Yo digo:

Tirana es la tierra,

Cuando me dice que me protegerá.

Yo digo:

Tirana es la roca,

Cuando me ofrece como almohada su musgo.

Yo digo:

Tirana es la hierba,

Cuando me amenaza que me herirá con su punta.

Yo digo:

Tirana es el aire,

Cuando me aprietan sus pulmones los míos.

Yo digo:

Tirana es la lluvia,

Cuando sus caprichos disimulan mis lágrimas.

Yo digo:

Tirana es la nieve,

Cuando su manta esconde tus huellas.

Yo digo:

Tirano es el cielo,

Cuando sus grises no me dejan distinguir el blanco y el negro.

Tirano es el universo,

Cuando su infinito es tan extensa como tu mirada marginal.

Y yo digo:

Soy tirano pero

Mi tiranía no asusta a nadie.



Asier Serrano

*Je dis:*

*Tyran est la terre,  
Quand elle m'a dit que me protège.*

*Je dis:*

*Tyran est la roche,  
Quand elle me propose comme oreiller sa mousse.*

*Je dis:*

*Tyran est l'herbe,  
Quand il me menacé de me blesser avec la pointe.*

*Je dis:*

*Tyran est l'air,  
Quand leur poumons serrent les miens.*

*Je dis:*

*Tyran est la pluie,  
Quand ses caprices cachent mes larmes.*

*Je dis:*

*Tyran est la neige  
Lorsque sa couverture cache tes pistes.*

*Je dis:*

*Tyran est le ciel,  
Lorsque ses grises ne me laisse pas distinguer le noir et le blanc.*

*Tyran est l'univers,  
Lorsque son infinité est aussi vaste que ton regard marginal.*

*Et je dis:*

*Je suis tyran, mais  
Mon tyrannie ne fait pas peur à personne.*

Říkám:

Tyranem je Země.

Když mi říká, že mě ochrání.

Říkám:

Tyranem je skála,

když mi nabízí svůj mech jako polštář.

Říkám:

Tyranem je tráva,

když mě ohrožovala popícháním.

Říkám:

Tyranem je vzduch:

když jeho plíce svírají ty moje.

Říkám:

Tyranem je déšť,

když jeho rozmary skrývají mé slzy.

Říkám:

Tyranem je sníh:

když jeho pokryv schovává tvé stopy.

Říkám:

Tyranem je nebe,

když mě jeho šediny nedovolují rozlišovat černou a bílou.

Tyranem je vesmír,

když jeho nekonečnost je tak široká, jako tvůj marginální pohled.

**Demagun marmoken mozorroa daramagula jantzita.  
Biluzik ageri zaizkigula arteriak eta zainak,  
pentsamenduak, desirak eta ametsak.  
Demagun karez beteriko burmuinak  
daratuluaz husten dizkiogula elkarri.  
Hareazko erlojuaren kristala  
berez pitza dadin uzten dugula,  
denboraren harea gero eta finagoa dela  
jabetzen garelako.  
Demagun gure inkontzientziaz  
gero eta kontzienteagoak garela.  
Espaloietako estolden burdinazko tapaki denak askatu  
eta zuloetan erortzearen beldurrik gabe  
paseatzen garela egunsentiaren piztiarioan.  
Demagun inoiz berriro  
ez lokartzeko intentzioarekin  
jaikitzen garela ohetik.  
Demagun ostirala dela  
eta zugana eraman behar ninduen hegazkina  
zerutik igarotzen ikusi dudala.**

Supongamos que llevamos encima el disfraz de medusa.  
Que nos aparecen descubiertos las arterias y venas,  
Pensamientos, deseos y sueños.  
Supongamos que nos vaciamos con el taladro  
los cerebros llenos de cal.  
Que dejamos que se agriete el cristal del reloj de arena,  
Porque nos damos cuenta que  
la arena del tiempo es cada vez mas fina.  
Supongamos que somos mas conscientes de nuestras inconsciencias.  
Que soltamos todas las tapas de hierro del alcantarillado de las aceras y que  
nos paseamos en el bestiario del amanecer sin miedo a caernos en los  
agujeros.  
Supongamos que nos levantamos de la cama  
Con la intención de no dormirnos otra vez nunca más.  
Supongamos que es viernes  
Y que veo atravesar en el cielo  
El avión que me iba a llevar hacia ti.

**Předpokládejme, že jsme v přestrojení meduzy  
Že se nám odkrývají cévy a tepny  
Myšlenky, přání a sny**

**Předpokládejme že se vyprazdňujeme s vrtem  
mozek plný vápna.**

**Nechme prasknout sklo písečných hodin  
Protože si uvědomujeme že  
písek času je čím dal víc jemnější.**

**Předpokládejme že jsem si vědomi našich  
nevědomostí.**

**Vypusťme všechna železná víka chodníkových kanalizací  
a procházejme se v bestiaří za svítání  
beze strachu ze spadnutí do děr.**

**Předpokládejme, že vstáváme z postele  
s úmyslem, že už nebudeme nikdy chtít zase spát.**

**Předpokládejme, že je pátek  
Vidím jak se na obloze protíná  
letadlo, které mě chtělo dovést až k tobě**

Ez zaitut ezagutzen  
baina zure biografia idatzi nahi dut.  
Esadazu, ezezagun maitea, esadazu:  
Negar egin al zuen amak mundura eman zintuenean?  
Pozezkoa edo atsekabezkoa izan zen negar hura?  
Non zegoen aita?  
Narrasean zenbiltzan gusturago  
edo, bi oinetan ibiltzearen bertigoak  
iraultzaile izan zintezkeen zorabioa eragin zizun?  
Totelka inprobisatu zenituen lehen berbak  
edo, lezioa umetokitik ikasia zenekarren?  
Kontatu, lagun arrotz hori, kontatu:  
Izebaren baratzaren erdian,  
ilargi betearen titiburua antsiatuz  
masturbatu zinenekoa.  
Hatzak pospoloekin erretzen zenituenekoa,  
mina garaitu zitekeela uste zenuenean.  
Katuei sei bizitza ebasten  
eta zazpigarrena barkatzen zenienekoa,  
Boterea, ibaian bi jauzi eman  
eta hirugarren jauzian urperatzen den  
harria dela deskubritu zenuenekoa.  
Erantzun arren:  
Maitatua sentitu izan al zara sekula?  
Maite izan al duzu inor sekula?  
Oihan itxi batean galdu izan al zara inoiz apropos,  
eta bertako piztiekin erlijioaz mintzatu?  
Zein itsasotan nabigatu zenuen haize kontra,  
uhandreen melodiari hitza jartzeko?  
Kontatu otoi:  
Bihotzak su-eten luze hori oparitu zizunekoa.  
Zeure burua doilorki torturatu zenuenekoa.  
Ispiluaren aurrean jarri zaren goiz honetakoa.

Ez zaitut ezagutzen  
baina zure biografia idatzi nahi dut,  
zaharren bekatu gehiegi baititu nire bizitza gazteak  
nire autobiografia idazteko.

**No te conozco**

**Pero quiero escribir tu biografía.**

Dime, querid@ desconocid@, dime:

¿Tu madre lloró cuando te trajo al mundo?

¿Aquel llanto fue de alegría o de pena?

¿Donde estaba tu padre?

¿Arrastrandote ibas mas a gusto

O, el vertigo de andar a dos patas

Te causó el mareo de poder ser revolucionario?

¿Improvisaste tus primeras palabras tartamudeando

O, traías desde el útero aprendida la lección?

Cuenta, amig@ desconocid@, cuenta:

En medio de la huerta de la tía,

Cuando te masturbaste ansiando los pezones de la luna llena.

Cuando te quemaste los dedos con las cerillas y te creíste que el dolor se podía superar.

Cuando le robabas al gato seis vidas

Y la séptima le perdonabas,

Cuando descubriste que el poder,

Es la piedra que al dar dos saltos en el río  
al tercer salto se hunde.

Contestame, por favor:

¿Te has sentido alguna vez amad@?

¿has amado alguna vez a alguien?

¿te has perdido alguna vez a propósito

En una selva profunda

Y hablar sobre religión con sus animales?

¿en que mares has navegado en contra

Para poder poner letra a la melodía de los tritones?

Cuenta, por favor:

Cuando el corazón te ofreció ese largo alto el fuego.

Cuando te torturaste a ti mism@ maliciosamente.

Cuando esta mañana te pusiste delante del espejo.

No te conozco

Pero quiero escribir tu biografía,

Porque mi vida joven tiene demasiados pecados de viejos

Para escribir mi autobiografía.

Neznám tě  
ale chci napsat tvuj životopis (biografii)  
Pověz mi,má drahá neznámá,pověz mi:  
Tvá matka plakala,když tě přivedla na svět?  
Onen nářek byla radost nebo zármutek?  
Kde byl tvuj otec?  
Když jsi se plazila (plížila) byl jsi krásnější (líbeznější)  
Nebo spěch po dvou nožkách  
Ti způsobil závrat' z možnosti být revolucionář?  
Napodobovala jsi slova koktáním  
Nebo sis donesl z dělohy první naučenou lekci?  
Vyprávěj,přítekyně neznámá,vyprávěj:  
V půli zahrady tvé tety  
Když jsi masturbovala toužící po bradavkách úplňky.  
Když sis popálila prsty sirkama a myslela jsi,že bolest se stále stupňuje.  
Když jsi ukradla kočce šest životů.  
A ten sedmý jsi jí odpustila.  
Když jsi objevila,že moc  
Je kámen,který když dvakrát skočí po řece,  
při třetím skoku se potopí.  
Odpověz mi,prosím:  
Cítila jsi se být někdy milovanou?  
Milovala jsi někdy někoho?  
Ztratila jsi se někdy záměrně  
V hlubokém pralese  
A mluvit o náboženství se svými zvířaty?  
Proti kterým mořím jsi se plavila  
Aby jsi mohla napsat slova k melodii o obratných plavcích?

Vyprávěj,prosím:  
Když ti srdce nabídlo ten největší oheň.  
Když jsi se mučila zlomyslně.  
Když jsi se toto ráno stoupla před zrcadlo.

Neznám Tě:  
Ale chci napsat tvůj životopis,  
Protože můj mladý život má příliš stařeckých hříchů,  
Abych napsal svůj životopis.

Elkarri ezer esan gabe  
gurutzatu genuen parkea azkenekoz.  
Adarbakar nabar bat igaro zen gure aurretik herrenka.  
Bere trosta geldoak  
milioika mitxoleten polena hedatzen zuen airean,  
eta udaberria izanagatik ere,  
ez ginen hitz egitera ausartu.

Elkarri ezer esan gabe  
gurutzatu genuen plaza nagusia azkenekoz.  
Bi lehoi eme ikusi genituen terraza batean eserita.  
Bata zuria, beltza bestea.  
Lehoi beltzak  
lehoi zuriaren betileak margotzen zituen  
errimel moreaz,  
eta udara izanagatik ere,  
ez ginen hitz egitera ausartu.

Elkarri ezer esan gabe  
gurutzatu genuen zubia azkenekoz.  
Bale albino batek,  
bizkarreko zilborrharen txorrotarekin,  
ibaiertzera erretiratzen zituen  
ibaiaren hondoan herdoildutako  
bizikleta eta guardasol guztiak,  
eta udazkena izanagatik ere,  
ez ginen hitz egitera ausartu.

Elkarri ezer esan gabe  
gurutzatu genituen aldirietako auzoak azkenekoz.  
Tximino koadrila asaldatu batek,  
ijitoen txatar eta kartoizko sutzarretan  
berotzen zituzten haien hezur dantzariak,  
eta negua izanagatik ere,  
ez ginen hitz egitera ausartu.

Ez zegoen ezer esateko.  
Gure ezpainak  
musu ematen ikasteko zeuden bertan.



**Cruzamos el parque por última vez juntos  
Sin decirnos nada.**

Pasó delante de nosotros un unicornio multicolor  
Su lento trote extendía en el aire el polen de las millones de amapolas,  
Y aun siendo primavera,  
no nos atrevimos a hablarnos.

Cruzamos la plaza mayor por ultima vez  
Sin decirnos nada.

Vimos en una terraza sentados  
Dos leonas.  
Una blanca, otra negra.  
El leon negro pintaba las pestañas de los ojos  
Al leon blanco don rimmel morado,  
Y aun siendo verano,  
No nos atrevimos a hablarnos.

Cruzamos el puente por ultima vez  
Sin decirnos nada.

Una ballena albina,  
Con el chorro de su ombligo de la espalda,  
Retiraba a la orilla del rio  
Las bicicletas y paraguas oxidadas en el fondo del rio,  
Y aun siendo otoño,  
No nos atrevimos a hablar.

Cruzamos los barrios de alrededor por ultima vez  
Sin decirnos nada.

Unos monos alterados calentaban en las fogatas de chatarra y carton de  
gitanos sus huesos danzantes,  
Y aun siendo invierno,  
No nos atrevimos a hablar.

No habia nada que decir.  
Nuestros labios estaban alli  
Para aprender a besar.

Přejdeme park opět spolu naposled  
Aniž bychom si něco řekli.  
Přešel před nama barevný jednorožec  
Jeho pomalý cval rozšiřoval ve vzduchu pyl milionů  
vlčích máků.  
A i když je jaro,  
neodvažujeme se mluvit

Přejdeme naposled hlavní náměstí  
Aniž bychom si něco řekli.  
Viděli jsme na terase jak sedí  
dvě lvice.  
Jednu bílou, druhou černou.  
Černý lev maloval řasy očí  
Bílému lvovi modrofialovou řasenkou.  
A i když je léto,  
Neodvažujeme se mluvit.

Přejdeme naposled most  
Aniž bychom si něco řekli.  
Jednu bílou velrybu  
S chrstnutím z lůna jeho zad  
Se odvěkla ke břehu řeky  
Okysličená kola a deštníky v hloubi řeky  
A i když je podzim,  
Neodvažujeme se mluvit.

Přejdeme okolní čtvrtě naposled  
Aniž bychom si něco řekli.  
Jedni změnění opičky se ohřívaly na ohnivé plány železného šrotu  
a krabice cikánů a jejich tančící kosti.  
A i když je zima,  
Neodvažujeme se mluvit.

Nebylo co říci.  
Naše rty byly tam,  
aby se naučily líbat.

Atertu duela dirudien arren,  
aitzakiarik inozoena asmatuko dut gaur,  
atzo zurekin hitzartutako bilerara ez azaltzeko.  
Telefonoa hartu eta  
hilaurrenaren herio ahotsa imitatuz,  
akaso esango dizut,  
bart, lau estralurtar sartu zaizkidala logelan  
eta haien zakilekin abduzitu nautela;  
edo atezainaren txakurrak  
gaixotasun benereoren bat kutsatu didala.  
Akaso esango dizut,  
auzoko ferian ezagutu ginen gauean,  
karabinen postuan bota  
eta oparitu zenidan pelutxezko artza  
odolusten hasi dela;  
edo gaurko eguna  
argitzen duen eguzkia ez dela guztiz betea,  
eta ez diedala beldurrik  
eguzkiaren izpiekin elikatzen diren  
hiriko likantropoei.  
Akaso esango dizut,  
goizean goiz aitortu didatela gurasoek  
sasikoa naizela;  
eta aitak txikitan bortxatu ninduela  
oraintxe bertan etorri zaidala akordura;  
edo inoiz onartu ez badizut ere,  
fededuna naizela  
eta bekatu egin aitzin  
bizi erdiko baraualdia egin behar dudala.

Edo akaso,  
zerbait inozoagoa esango dizut,  
zerbait laburragoa,  
jada ez zaitudala maite edo.

Aunque parezca que haya amainado,  
He inventado hoy la excusa más tonta,  
Para no aparecer a la cita que ayer puse contigo.

He cogido el telefono y  
Imitando la voz del moribundo,  
Quizá te diré que  
Ayer, cuatro extraterrestres entraron en mi dormitorio  
y me abducieron con sus penes;  
o que el perro del portero  
me contrajo una enfermedad venérea.

Quiza te dire que  
En la noche que nos conocimos  
en las fiestas del barrio,  
el oso de peluche que te regalé  
se esta desangrando;  
o que el sol que sale el dia de hoy  
no esta del todo lleno,  
y que no les tengo miedo  
a los rayos de sol que alimentan los licantropos de la ciudad.

Quiza te dire que  
A la mañana temprano  
Mis padres me han dicho que soy hijo bastardo;  
Y que me acuerdo ahora que mi padre de pequeño me violó;  
O, aunque nunca te lo confesado,  
Soy creyente  
Y antes de pecar  
Tengo que hacer ayuno la mitad de mi vida.

O quiza,  
Te dire algo más tonto,  
Algo mas corto,  
Que ya no te quiero, por ejemplo.

**I když to vypadá, že jsem se již zklindil  
Vynalez jsem tu nejhoupější omluvu  
A bych nemusel na schůzku (rande), kterou jsem s tebou dohodl.**

**Vzal jsem telefon a  
Když jsem mluvil hlasem jako bych umíral  
Možná ti řeknu že  
Včera čtyři mimozemšťané vstoupili do mé ložnice  
A obklíčili mě svými údy  
Neboli pes vrátného  
Mě nakazil jednou virovou nemocí**

**Možná ti řeknu, že  
V ten večer, kdy jsme se poznali  
Na oslavách ze čtvrtě  
ten plyšový medvěd, kterého jsem ti daroval  
se vypouští  
neboli slunce které dnes vychází  
není zcela vyplněn  
a že z nich nemám strach  
z paprsků slunce, které vyživují likantropy města**

**Možná ti řeknu  
Brzy (časně) ráno  
Mí rodiče mi řekli, že jsem bastard  
A nyní si vzpomínám, jak mě můj otec týral  
A i když nikde jsem ti to nepřiznal  
Jsem věřící  
A před tím, že zhřeším  
Se v další puli mého života postím**

**A možná,  
Ti řeknu něco hloupějšího,  
Něco kratšího,  
A to, že tě už nemám rád, například.**

“Horrenbeste dago idazteko  
urgentziazko garai hauetan...”  
esan zenidan, eta nik  
ez nuen jakin interpretatzen  
hiru puntu horien atzean  
puntu bakarra ezkutatzen zenuenik.  
Ilunabarra zen eta saguzarrek  
setio egoera ezarri zuten hirian.  
Zure apartamentuan harrapatu gintuen aginduak.  
Ardo gorri botila bat ireki zenuen lehendabizi,  
eta kortxo askatuaren koloreak  
ez zidan zutaz ezer berezirik esan.  
Ardo beltz botila bat ireki zenuen ondoren,  
eta kortxo askatuaren koloreak  
argitu zidan zeintzuk ziren  
zure ezpainen asmoak.  
Azala josi eta desjosi genion elkarri.  
Zigarro bat piztu zenidan,  
eta ahokada luze bat eman nion  
erretzeari aspaldi utzi niola ahantzirik.  
“Horrenbeste dago idazteko  
urgentziazko garai hauetan...”  
esan zenidan, eta nik  
ez nuen jakin interpretatzen  
hiru puntu horien atzean  
puntu bakarra ezkutatzen zenuenik.  
Ez nintzen ohartu  
logelako atean iltzaturik zegoela  
zure begiek osatzen zuten puntu bakar hori.

**“Hay tanto que escribir  
Estos días de urgencia...”  
Me dijiste, y yo no supe interpretar  
Lo que escondías detrás de esos tres puntos suspensivos  
Era un solo punto.**

Al atardecer los murcielagos  
Establecieron el toque de queda en la ciudad.  
Nos pilló la orden en tu apartamento.  
Primero abriste una botella de vino claro,  
Y el color del corcho liberado  
No me dijo nada especial de ti.  
Luego abriste una botella de vino tinto  
Y el color del corcho liberado  
Me aclararon cuales eran las intenciones de tus labios.  
Nos cosimos y descosimos la piel.  
Me encendiste un cigarrillo,  
Y me diste una calada,  
Olvidandome que deje de fumar hace ya mucho tiempo.  
“Hay tanto que escribir  
Estos días de urgencia...”  
Me dijiste, y yo no supe interpretar  
Lo que escondías detrás de esos tres puntos suspensivos  
Era un solo punto.

No me di cuenta  
Que ese unico punto estaba clavado  
En la puerta del dormitorio.

**“Je třeba toho tolik psát  
V těchto urgentních (naléhavých) dnech...”  
Jsi mi řekl/a, a já se nepustil do interpretace  
To co jsi skrýval/a za těmito odkládajícíma bodama/tečkama  
Byl jen bod/tečka.**

**Když se shchýlovalo k večeru, netopýři  
Ustanovili si dotykem, že zůstanou ve městě.  
Vydrancovali/zničili nám upravu/pořádek v tvém apartmá.  
Nejdříve jsi otevřela láhev světlého vína,  
A barva toho osvobuzujícího korku,  
Mi o tobě nic zvláštního neřekl.  
Poté jsi otevřela láhev červeného vína  
A barva toho osvobuzujícího korku,  
Vyjasnily se mi úmysly tvých rtů.  
Šili jsme a odpárali jsme pleť.  
Zapálila jsi mi cigaretu,  
A dala jsi mi vsak/vsáknutí.  
Už jsem zapomněl, kdy jsem přestal kouřit.  
“Je třeba toho tolik psát  
V těchto urgentních (naléhavých) dnech...”  
Jsi mi řekl/a, a já se nepustil do interpretace  
To co jsi skrýval/a za těmito odkládajícíma bodama/tečkama  
Byl jen bod/tečka.**

**Neuvědomil jsem si,  
Že jeden jediný bod byl přibitý  
Na dveřích ložnice.**



Diogenes sindromea zeukala zioten,  
iragan minak jotako gaixoek  
baztertutako oroitzapenak  
bere etxera erretiratzen zituelako.  
Polizia, suhiltzaile eta garbiketa brigadakoek  
izerdi beltz eta usteldu tantakada franko  
isuri behar izan zuten  
bere gorpua aurkitzerako.  
Behin erradioak  
txori kaiola hautsietako barroteetatik bereizitakoan,  
bost bizikleta kiskaliren hezurdurak  
identifikatu zituzten korridore ikaztuan barreiaturik.  
Masusta koloreko txikle masa erraldoiak ziruditen  
zabor poltsa ugariak ezbaika miatu zituzten,  
trabatutako geletan barneratu aitzin:  
Tamaina eta etnia ezberdineko  
hiru panpina erregosi;  
A eta Z teklak soilik irakur zitezkeen  
idazmakina tinta zinta gabea;  
erretratu karratu bat babesteko  
behar lukeen marko obalatu bat;  
biolontxelo baten bi soka grabeenak;  
putarik putenak bakarrik jantzi ahalko zuen  
ezkontza soineko zimurtua;  
daga okertu eta kamuts bat;  
hamabiak hiru segundo gutxi markatzen zituen  
kuku-ordulari bat;  
aterki baten kirtena edo  
buzo baten arnagailua...  
Sukaldean hartz disekatu bat ediren zuten,  
bigarren heriotza lazgarria  
sufritu duenaren izua erakusten zuten  
txaketa zahar baten botoiekin egindako hartzaren begiek.  
Salako paretan  
alderantziz gurutziltzatutako kristo beltzarana.  
Komuneko baineran  
aurkitu zuten bere gorpua azkenik.  
Kristalezko anfora baten barrenean zegoen uzkurturik.  
Inork ezin zezakeen asmatu nola sartu zen  
edo nola sartu zuten bertan.  
Kristalaren gaindi, bizkar biluzian,  
letra larriz idatzia irakur zitekeen:  
“Ez ezazue anfora hautsi,  
ez nazazue hemendik atera,  
geratzen zaidan espazio urri hau  
nire oroitzapenatarako gorde gura dut”.

Dijeron que tenia el síndrome de Diógenes,  
Porque llevaba a casa  
Los recuerdos marginados de los enfermos del pasado.  
Los policías, bomberos y los de la brigada de la limpieza  
Tuvieron que derramar bastantes gotas de sudor negro podrido  
Para encontrar su cuerpo.  
Una vez los radios separados de los barrotes rotos de las jaulas de los pájaros,  
Identificaron las armaduras de cinco bicicletas oxidadas entre corredores  
carbonizados.  
Antes de adentrarse en las habitaciones obstaculizadas  
rebuscaron dudando entre las múltiples bolsas de basura  
que parecían gigantescas masas de chicle color mora:  
tres muñecos recalentados de diferentes tamaños y etnias;  
una máquina de escribir sin cinta de tinta  
en la sólo se podían leer las teclas A y Z;  
un marco ovalado que debería estar protegido  
por un retrato cuadrado;  
las cuerdas más graves de un violonchelo;  
el vestido de novia arrugada  
que sólo podría llevarla la más puta de las putas;  
una daga torcida y desafilada;  
un reloj de cuco que marcaba las doce menos tres minutos;  
el mango de un paraguas o  
el respirador de un buzo...

encontrarían un oso disecado en la cocina,  
mostrarían el miedo de los ojos del oso hechos con los botones de una  
chaqueta vieja de quien ha sufrido una segunda muerte terrible.

En las paredes del salón  
Un Cristo moreno encrucijado del revés.  
Al fin encontraron su cuerpo  
En la bañera del baño.  
Estaba encogido dentro una ánfora de cristal.  
Nadie podía imaginar cómo se metió  
O cómo lo metieron ahí.  
A través del cristal, en la espalda desnuda,  
Se podía leer:  
“no rompáis el ánfora,  
No me saqueis de aquí,  
Quiero guardar este reducido espacio de mis recuerdos  
que me queda”..

Řekli, že jsem měl Diogenesův syndrom.  
Protože jsem nosil domů  
Okrajové vzpomínky nemocných z minulosti.  
Policisté, hasiči a uklízeči.  
Museli vypotit dost černých zhnílých kapek  
Aby našli své tělo.  
Jednou oddělené okraje rozbitých železných tyčí z klecí pro ptáky,  
Identifikovali brnění pěti okysličených kol mezi uhelnými chodbami  
Předtím, než proniknou do překážkových místností  
Prohledali s pochybama mezi četnými odpadkovými taškama,  
které vypadaly jako gigantické masy malinových žvýkaček.  
Tři ohřáté loutky různých velikostí a etnik,  
psací stroj bez barevné pásky  
v ní se mohly číst jen písmena od A - Z  
Ochranný rám, který by měl být chráněný  
čtvercovým portrétem  
nejtěžší struny violončela  
šaty vrásčité přítelkyně  
které by mohla nosit jen ta největší děvka ze všech  
Jedna zakroucená a tupá dýka  
kukačové hodiny, které odbíjely za tři minuty dvanáct  
rukojeť jednoho deštníku nebo  
dýchací přístroj jednoho potápěče.

Našli by vypitvaného medvěda v kuchyni  
ukázali by strach z očí medvěda udělané z knoflíků jednoho starého saka  
který trpěl druhou hroživou smrtí

Na zdech salonu  
Tmavovlasý Kristus naopak ukřížený  
Nakonec našli jeho tělo  
Ve vaně v koupelně  
Byl vstrčený v jedné skleněné amfoře  
Nikdo si neuměl přestavit, jak se tam dostal  
Nebo jak ho tam dali.  
Skrz sklo, na holých zádech  
Se mohlo číst  
“nerozbíjejte tu amforu  
nevytahujte mne odtud  
chci si uchovat tohle úzké místo na vzpomínku  
který mi zbývá“...

Zabal ezazu zure esku ahurra nirean  
eta utz diezaiogun munduari erabakitzen.

Utz diezaiegun antzare  
neguaren arrats agnostikoetan  
zein konstelazio urratu nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun itsasontzi ugertuei  
lurraren zainetatik ostutako olio jarioa  
zein hondartzetan isuri nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun trapu-saltzaile nomadei  
hizkuntza desagertuen azokan  
zein bandera ukatu nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun behi orbanduei  
larruaren estetikaz haratago  
zein ezinezko geografia sortu nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun jaioberriei  
begiak argira ohitu baino lehen  
amaren edo aitaren antza izan nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun katedraleko kanpaiei  
ezkontza ospakizunetan  
zein dolu pieza jo nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun haritz zaharrei  
adar ahul eta kimatuetan  
zein urkatu eskegi nahi duten erabakitzen.  
Utz diezaiegun liburu sakratuei  
bigarren orritik aurrera  
zein amaiera izan nahi duten erabakitzen.

Zabal ezazu zure esku ahurra nirean  
eta utz diezaiogun munduari  
gure etorkizunaren marrak  
askatu behar ote dituen erabakitzen.

**Extiende la palma de tu mano en la mia  
Y dejemosle al mundo decidir.**

Dejemosles a las ocas  
En las tardes agnosticas de invierno  
Decidir que constelación quieren abrir.  
Dejemosles a los barcos oxidados  
Decidir en que playa quieren derramar  
Fluido oleico robado de las venas de la tierra.  
Dejemosles a los vendedores de telas nomadas  
En el mercado de los idiomas desaparecidos  
Decidir que bandera quieren negar.  
Dejemosles a las vacas manchadas  
Más allá de la estetica del cuero,  
Decidir que geografia imposible quieren crear.  
Dejemosles a los recién nacidos  
Antes de que se acostumbren a la luz  
Decidir si quieren parecerse a la madre o al padre.  
Dejemosles a las campanas de la catedral  
En las bodas  
Decidir que pieza de luto quieren tocar.  
Dejemosles a los robles viejos  
En las ramas debiles y podadas  
Decidir que ahorcado quieren colgar.  
Dejemos a los libros sagrados  
A partir de la segunda pagina  
Decidir que final quieren tener.

Extiende la palma de tu mano en la mia  
Y dejemosle al mundo decidir  
Decidir si deberian liberar  
Las lineas del futuro.

**Tvá dlaň se rozpíná v té mé  
A nechme ji světu se rozhodnout.**

**Nechme je kachnám  
V agnostickýh zimmích večerech  
Rozhodnout jakou konstalaci hvězd otevřít.  
Nechme je v okysličeých lodích  
Rozhodhnout,na jaké pláži se rozšířit  
Ukradená tekutina z cév země  
Nechme je prodavačům nomádních látek  
V obchodě zmizelých jazyků  
Rozhodnout jakou vlajku popřít  
Nechme je skrvněným kravám  
Více vzdálená estetice kůže  
Rozhodnout,jako nemožnou geografii vytvořit.  
Nechme je čerstvě narozeným  
Dříve,než si zvyknout na světlo.  
Rozhodnout,zda se chtějí podobat matce nebo otci  
Nechme je zvonům katedrály  
Na svadbách  
Rozhodnout,jakého smutečního šatu se dotknout  
Nechme je starým dubům  
V slabých a postříkaných větvích  
Rozhodnout,jakého oběšence pověsit  
Nechme svaté knihy  
Od druhé strany  
Rozhodnout jaký konec chtějí mít.**

**Tvá dlaň se rozpíná v té mé  
A nechme ji světu se rozhodnout  
Rozhodnout zda osvobodit  
Čáry budoucnosti.**

Okerrera egingo duen gaitz sendaezina  
diagnostikatu badizute ere,  
ez zara gaur hilko gazte;  
beraz, emazkiozu eskerrak doktoeari eta  
akitu itzazu geratzen zaizkizun egun edo asteak  
lastimaren amarauna harilkatzen.

Horrelakoak gara gazte,  
dena lor daiteke lastimarekin:  
Apaiz despistatu baten igandetako limosna  
edo haurdun dagoen neskatoaren felazioa.  
Gida baimenik gabe  
eskola umeen autobusa gidatzeko gonbitea,  
edo zaharren egoitzan oxigeno bonbonak  
butano bonbonengatik ordezkatzeko aukera.  
Zaude adi gazte,  
lastimaren enbaxadore izendatu baitzaitzakete,  
eta tundretako flamenkoek  
dantza geldo bat eskainiko dizute.  
Dunetako sugetzarrek  
beraien pozoia irentsi beharko dute zure igaroan.  
Estepako otsoek  
ulu egingo dute ilargi handiaren magia  
kutsatzen uzten zaren hurrengo aldian.  
Eta asko estutuz gero,  
zure izena daraman auzo berri bat  
eraikiko dute hiriaren periferian.

Akitu ezazu geratzen zaizun denbora gazte,  
lastimaren amarauna harilkatzen,  
doktoarea diagnosian erratu dela dioen  
gutuna jaso baino lehen.

**Si te han diagnosticado  
Una enfermedad incurable que ira a peor,  
No morirás hoy joven;  
Por lo tanto, dale las gracias al doctor y  
Termina los ultimos dias y semanas  
Ovillando la red de la lástima.**

Asi somos jóvenes,  
Se puede lograr todo con lástima:  
La limosna de los domingos de algun cura despistado  
O la felación de la chica que esta embarazada.  
La invitación para conducir un autobus escolar  
Sin permiso de conducir,  
O la posibilidad de cambiar las bombonas de oxigeno  
Por las bombonas de butano en el asilo de ancianos.  
Atento joven,  
Porque te pueden nominar para embajador de lástima,  
Y los flamencos de las tundras  
Te ofrecerán un lento baile.  
Los culebrones de las dunas  
Deberian tragar su veneno a tu paso.  
Los lobos de la Estepa  
Ulularán por la magia de la gran luna  
La proxima vez que te dejes contaminar.  
Y si insistes,  
Construiran un nuevo barrio con tu nombre  
En las afueras de la ciudad.

Apura lo que te queda de tiempo joven,  
Ovillando la red de la lastima,  
Antes de recibir la carta  
Donde dice que se confundieron en el diagnostico.



**Jestli tě diagnostikovali  
Jednu nevléčitelnou nemoc, která se bude zhoršovat  
Dnes nezemřeš mladý.  
Každopadně přesto poděkuj doktorovi a  
Ukonči poslední dny a týdny  
Svitím sítě lítosti.**

**A tak jsme mladí,  
Všeho se může dosahnout s lítostí,  
Nedělní almužny jednoho kněze despitado?  
Nebo felacion? těhotné dívky  
Pozvání k řízení školního autobusu  
Bez povolení k řízení,  
Nebo možnost změnit okysličené bomby,  
Za butanové bomby v domě důchodců.  
Pozorný mladíku,  
Protože tě mohou jmenovat na lítostivého ambasadora  
A tundroví plameňáci  
Ti nabídnou poamlý tanec.  
Dunové užovky,  
By měly hltat jed při tvém kroku.  
Stepovní vlci  
Budou houkat magií velkého měsíce  
Na příště, až se necháš kontaminovat/znečistit.  
A jestli naléháš,  
Poství novou čtvrť pod tvým jménem  
Na okrajových částech města.**

**Očisti to, co ti zbývá z tvého mladého času  
Svitím sítě lítosti  
Předtím, než napíšeš dopis,  
Kde se říká, že se v diagnostice spletli.**